

Aurreproieituak

Tokiko moneta Euskal Herriarentzat

Printzipio orokorrak

1. Euskal Herriko biztanleek, bi itzulitako hauteskunde baten bitartez, monetaren izena hautatuko dute. Martxoa-apirila hilabeteetan beren monetari eman nahi duten izena proposatzen ahalko dute. Ondotik, zenipeko batek, jarraipen taldeko eta gidoi taldeko kidez osaturik, zerrenda huntako 7 izen hautatuko ditu. Gero, biztanleek bozkatzen ahalko dute zazpi izen horietatik baño hautatzeko. Herri urratsen, maiatzaren 13an « zazpietatik bat » bozkatzea bukatuko da.
2. **Moneta Iparraldean abiatuko da.** Bigarren denbora batean hedatze bat Hegoaldera pentsatua izan daiteke.
3. Moneda euroekin trukatua izanen da, **1 = 1 tasarekin, xahupenik gabe.**
4. Bildutako euroak kondu batean atxikiak izanen dira, **berme fundua**osatzen dute. Berme fundu hori finantzia instituzio solidario eta etiko batzuetan atxikia izanen da. Diru zama horren baliatzeko eztabaidak izanen dira, mailegu batzuen egiteko lurraldearen beharrerari erantzuteko.
5. Moneta ez da berriz trukatzen ahalko partikularrentzat.
6. Komertsanteek %5-eko komizionea kenduz moneta berriz trukatzen ahalko dute. Moneta errezebitzen dutenek (komertsantek, TEEK, lanbide liberalek, artisauek...) 100 tokiko moneta unitate 95€ren truk errezebituko dute.
7. %5 komizione hortan ez da salbuezpenik izanen. Bilan bat eginen dugu urte baten bukaeran jakiteko bukaerako hornitzaileentzat edo komertsante berezi batzueri problema bat den ala ez.

8. %5 komizionearen gainean, moneta kudeatzen duen elkarteak %2a errezibituko du, eta **%3ak finantziatuko** du jaulgipena, hots **partikularrak hautatu duen elkarteari** dohaintza finantzatzeko.
9. **Jaulgipena:** kideak bakotxarentzat (urte batekoa), kideak sustengu nahi duen elkarte bat hautatuko du. Hiru hilabetetan behin, kideak azken hiru hilabetetan trukatu dituen diru zamaren %3a kalkulatu izanen da. Berak hautatutako elkarteak diru zama hori hiruhilaren bukaeran errezibituko du (tokiko moneta unitateetan).
10. **Moneta urtuko da.** Urtze hori garrantza izanen da. **Urtzea %2koa izanen da hiru hilabete guziz:** urtarrilaren 1^{ean}, apirilaren 1^{ean}, uztailaren 1^{ean} eta urriaren 1^{ean}.
11. **Data horietan txartela ukanen duenak beharko du %2 ordaindu.** Elkarteak salduko dituen tinbre batzu txartelaren gibelean kolatu beharko dira. Adibidez: 20 zentimoko tinbrea 10 unitateko txartel baten gainean kolatu beharko da.
12. Txartel horiek zerbitzu emaileek ukanen dituzte. Urtzearen egunean tinbreak kutxan dituzten txartelen gibelean kolatuko dituzte. Kide bat etortzen baldin bada urtzearen eguna pasatu ondoren ezin tinbratutako txartel batekin, txartelaren balorearen %2a pagatu beharko du komertsanteari. Orduan komertsanteak, denbora berean edo egunaren bukaeran, kolatuko ditu tinbreak txartelen gibelean.
13. Txartelek urte 1 edo 2ko bizia ukanen dute. Lehen kasuan, data pasatu eta 6 hilabeteko epearekin trukutzen ahalko dira, bigarren kasuan urte bateko epearekin izanen da.
14. **Lurralde elkargoek** sozial laguntzak edo elkarteeri diru laguntzak tokiko monetarekin banatzen ahalko dituzte. Horrek tokiko ekonomia sustatuko du. Tolosako esperientziak (SOL Violette monetarekin) langabezia edo baztertuak direneri diru laguntzak tokiko monedan banatzea, beren sartzeari bizi sozialean erresten duela frogatzen du.
15. **Moneta elektroniko bat abiatuko da bigarren denbora batean,** eta paperezko monetako ber arauak ukanen ditu, izan dadin urtzearentzat edo bertrukaketarentzat.

Komertsante eta partikularren artean, mugikorren bitartez pagatzea pentsatua da. Diru-isurtzeak pentsatuak dira ere konduen artean, Paypal edo txeke batzuen bitartez, sistema hori bakarrik profesionalen artean, edo nagusi eta langileen artean izan daiteke.

Sarearen egitura

16. Tokiko moneta **2013ko urtarrilaren 1ean** abiatuko da.
17. Iparralde guzian bultzatua izanen da, kantonamenduka, biziguneka, herri elkargo edo hirika, lurralde bakotxari egokia zaion eskalan. Lurralde horiek, izaera ezberdinetakoak izanik ere, **eskualde** deituak izanen dira.
18. Beren eremuan bertako moneta biziara nahi duten tokiko taldeek animatuko dituzte eskualdeak. Tokiko talde bakotxak bere eskualdearen eremua definituko du.
19. Bere lurraldean monetaren bultzatzeko, eskualde bakotxak elkartu beharko ditu **guttienez** :
 - **6 boluntario**, horietan 3 arduradun :
elkartearekiko koordinaketa
zerbitzu emaile, elkarte partaide eta erabiltzaileekilako harremanak
kudeaketa/diru kutxa
 - **120 erabiltzaile**, heien artean bederen **10 000 euro** aldatu beharko dituztenak
 - **5 elkarte** partaide, orotara 300 kide bederen kondatuko dituztenak
 - **3 aldagune** : enpresa, elkarte, komertsio, etb...
 - **35 zerbitzu emaile**, eta horietan :
 - 7 hurbileko komertsio** : ostatu, janari saltegi, ile apaindegi, farmazi, etab...
 - 7 ofiziale eta ofizio liberal** : mediku, horzkin, iturgin, josedun, tindatzaile, etab...
 - 7 ekoizle** : laborari, arrantzale, arte ofiziale, etab...
 - 7 aisialdi, kirol edo kultur elkarte** : besta-komite, dantza elkarte, festibal, kirol klub, gau eskola, etab...

Ez da minimorik galdegiten **zerbitzu publiko** emaileentzat, bereziki herri heinean : pizina munizipala, eskola autobusa, kantina, etab...

20. Eskualde batean sortzen den tokiko talde bakotxak monetaren elkarte kudeatzaileari bere bultzatze proiektua presentatuko dio, hunek egingarritasuna balioztatzen lagun dezan eta bultzaketa onest dezan. Hala nola **monetaren bultzaketa lurralde orokorrean etapazkoa** izanen den.
21. 2013ko urtarrilaren 1tik goiti, hornitzaileak edonun izan daitezke, baita eskualdetatik kanpo. Moneta osagarriarekin pagatuak izaiten ahalko dira. Heien kondu gero eskualde aktiboetan erabiltzea moneta, edo eurotara aldatzea.
22. 2012ko udatik goiti bihurteta / konbertsio kanpaina eramanen da. Iparralde osoan biztanleek ekainean sortuko den elkartearen kidegotza har dezakete. Hola, eman dezazkete 100 euro 2013ko urtarrilaren 1ean errezebituko dituzten 100 bertako moneta unitateren truk.
23. 2013ko urtarrilaren 1ean, moneta bultzaturik ez duen eskualde bateko biztanleek beren moneta eurotan aldatzen ahalko dute gasturik gabe, nahi badute. Halere elkartearen kide egonen dira.
24. Urte baten buruan, ibilmoldearen bilana orokor bat egina izanen da bultzatze eskualdetan

Zerbitzu emaileen onarpena

25. Zerbitzu emaileen onarpena eta beren kidetasuna sistemarik ez da oraindik definitua. Baina apirilaren bukaeran izanen da.
26. Definitu behar diren testuak hauek dira:
- **Elkartearen xarta**, bere baloreak definitzen dituenak, eta onartzen ez diren kriterioak, horiek kanporatuko ditu sektore ekonomiko batzu.

- **Galdeketa bat**, zerbitzu emailearekin sozial eta ekologia mailan bere engaiamenduak zein diren ebaluatzeko, euskararen alde eta lurraldearentzat hartzen edo hartzen ahal dituen neurriak.
- **txosten lagungarria**, hobekuntza bideak emanen dituenak, eta laguntzen ahal duten instituzio lagungarriak (Ademe, Bai euskarari, etab...)

27. **Zerbitzu emaileak engaiatuko dira**, urtero edo bi urte guziz, onarpen denboraren arau, **praktika hobekuntza** batzuetan. Engaiatze horiek, edo helburuak, haiek hartuko dituzte, beren aktibitatea eta **beren errealitate profesionalari egokitua** izan daitezkeenak. Helburuak arlo horietakoak izanen dira:

- **Soziala**: enplegua, prezioa, enpresa egitura, diskriminazioen kontrako neurriak, etab.
- **Ekologia**: aztarna ekologikoa murriztu edo baliabide naturalen hartzea (ondarkinen bereixtea, produktu biologiko edo ekologikoen salmenta, energia ekonomiak, enbalatzeen murrizketa, auto-partekatzea, etab...)
- **Euskara**: Bai euskarariko ebaluaketan oinarrituko da. Euskararen afitxaketa dendetan eta euskararen erabilpena sustatuko du (izan daiteke ikastaro batzuen bitartez, profesional formakuntzarekin finantziatuak).
- **Lurraldea**: hornitzaileen bertokiratzea, auzoaren bizitza, kantonamendu edo hiriaren engaiamendua bizi sozialan, partaidetza elkarrekin, monetaren hedaketa laguntzea, etab...

28. Moneda kudeatzen duen elkarteak, zerbitzu emaileak onarpenera lortzeko, hartu dituen engaiamenduak bere funtsezko ofizioari lotuak direla segurtatuko du, oportunismo efektuen saihesteko.

29. Tokiko taldeak engaiamendu horiek **erreski egiaztatu** beharko ditu, sistema konplikatu eta kanpoko kontrol batean ez sartzeko.

30. Zerbitzu emaileek monedaren **web gunean** orrialde bat ukanen dute, non galdeketa aspektu positiboak idazten ahalko dituzten. Urtean hartu dituzten engaiamenduak idatziko dituzte ere. Dendan galdeketa eta engaiamenduak afitxatzen ahalko dituzte ere. **Gardentasun** hori kontsumitzailearentzat berme gehigarri bat izanen da.

Atxikimendua

31. **Partikularren atxikimendua** beren ahalmenen neurrikoa izanen da. **5 eta 20€-ren artean** ordaintzen ahalko dute.

32. **Elkarteen atxikimendua** beren ahalmenen neurrikoa izanen da. **5 eta 20€-ren artean** ordaintzen ahalko dute.

33. Elkarte lagunek, %3aren jaulgipena ukaiteko aizu zirenek, zerbitzu emaile izan beharko diren hein batean, hots beren kideen atxikimenduaren parte bat tokiko monetaz hartu beharko dute. **Elkarte horien kotizazionea elkarte orokorren sistemakoa izanen da.**

34. Zerbitzu emaileen atxikimendua izanen da **60 eta 240-ren artean**, beren ahalmenen arabera. Kotizazionean bi alditan pagatua izan daiteke, bigarren ordainketa lehena baino sei hilabete berantago izan behar da.

35. Uztailaren 1etik landa onarpena ukaiten duten zerbitzu emaileek atxikimenduaren erdia pagatzen dute.